

# H Arte Garaikideko Hiztegia

## Happening

Ordurarte erabili gabea eta zuzenean bizitzeko moduko izango zen afirmazio artistikoko espresio-potenzial baten bila ibiltzeak ondorio bezala zera ekarri zuen, berrogeitamarreko urteetan *happening* ekintzazko forma artistikoa sortzea. Horren sorreran bizitza zuzenean atzitu-nahi bat aurkitzen da eta, arte informala-ren kontrapisu bezala sortuz, errealismo berriarekin Parisen eta New Yorken Pierre Restany teorikoaren inguruan eratu zen mugimendu neodadaista eta neorrealista-ren produktu bat da.

*Happening* kontzeptua Allan Kaprov-ek erabili zuen lehenengo aldiz 1958an New Yorkeko Reuben Galleryn egindako arte-errepresentazio baterako, ospakizun horretan ikusleei gonbitea luzatu baitzitzairen aktoreen ihardunetan berek ere parte har zezaten, adibidez kupelak lurretik piritika ibilarazten, aluminio-plaka izugarriak arrastan eramaten, etab. Ekintzazko gertaera honen ondotik garatu zuen Kaprov-ek *Happening*-aren teoria eta definizioa: "*Happening*-aren eta eguneroko bizitzaren arteko muga, zalu bezain zehazgabe mantendu behar da beti. Giza-ekintzaren eta lehendik dauden gauzen elkarren arteko eragina interakziorik gorenenera altxatzen da honela... Material, ekintza eta irudi guztien eta beren arteko espazio-denborazko erlazioen konposizioa modu sinple eta praktikiko-praktikoan egin behar da. *Happening*-ean ez da probako entseurik egin behar, eta ez-profesionalen kasuan, behin bakarrik egin behar da".

Kontzeptuaren zehazte honetan azaltzen dira laburtuta *happening*-aren funtsezko irizpide guztiak: eszenifikatzailearen (artistaren) eta publikoaren arteko diferentziak kendu egin behar dira; eguneroko bizitzan ezagututako egoeretara egokitu behar da ekintza artistikoa. *Happening*-ak ez du inolako irakaskuntz edukinik eskaintzeko helbururik, baizik eta, juxtu-juxtu, saiatzeko rutinazko portaera eta mekanismo mentalen ondorioz sortutako lozorrotik kontzientzia esnarazten, emoziozko ahalmena berri ere sentibiltzatuz. *Happening*-aren kontzeptuaren barruan, momentu sortzaile mekanismo kitzikagarriaren aprobeztamenduan kokatzen da, hori sortzen baita sorpresa-efektua ekintzazko prozesu jakin batzuekin konfrontazioan jartzea probokatzeko denean, eta kontestu horretan, beraz, artistarentzat ezinbesteko gertatzen da nola, non eta zein baldintzatan jartzen duen berak jokoan publikoari zuzendutako ekintza hori. *Happening*-ak arteko materialen erabateko hedapen bat dakar berarekin lotuta, izan ere, egoera jakin baten barruan edozer gauza, errealtatearen prozesuaren barruan edozein ekintza-une izan baitaitezke material artistiko.

Kaprowen *happening* teoriaren zentzu pararelo batean garatu zuen Vostell-ek bere *décollage-happening* izenekoa, izan ere, faktore desegingarrietatik eta berebat hondagarriak diren faktore autosuntsizaleetatik abiatuz, "gertaera" batean buka-

tzen baitu, berak bere bakartasunean eta bere *happening*-aren barruan honako kontsuntzio-faktore hauetan kristalizatu: "ikusleak bereizi ditzake eta bereizi egin behar ditu forma eta edukina. Bizitzan saminak eta lazgarriak diren hainbat gertaera izaten du, kontratik, halako irradiazio estetiko liluragarri bat ere, eta halakotan, jakina, gaitzetsi egin behar dira gertaera horiek edukina eta ondorioak. *Happening*-ean agerian jartzen dira amets gaizto horien eta zorrozto egiten da esplikaziorik gabeko gauzei eta adurrari buruzko kontzientzia".

1962an bat egin ziren *happening* mugimendua eta *fluxus* mugimendua, ekintza-artearen forma musikal bat baita hau. Eta zalaparta batean zabaldu ziren *happening* eta *fluxus* hauek New York, Paris, Amsterdam, Kolonia, Düsseldorf, Berlin eta Bienen zehar. *Happening* errepresentazioetan funtsean inplikaturik dabilta Joseph Beuys, George Brecht, Bazon Brock, John Cage, Henning Christiansen, Philip Corner, Jim Dine, Robert Filliou, Eric Hansen, Bici Hendricks, Dick Higgins, Tadeusz Kantor, Jean-Jacques Lebel, Otto Muehl, Hermann Nitsch, Claes Oldenburg, Yoko Ono, Nam June Paik, Robert Rauschenberg, Carolee Schneemann, Robert Watts eta Emmet Williams.

## Haptisch

Ukimenaren bitartez egiten den iharduerazko pertzeptiboa.

## Hard-core pintura

Kartel-pintoretako mota jelidoki distantziatu bat izendatzeko erabiltzen den kontzeptu bat da, ikonografia bezala publikitate modernoaren gaien errepertorioa jasotzen duena beren errotilu desindibidualizatu eta guzti. Ipar Amerikaren mendebaldeko kostako pop artean sortu zen **hard-core** pintura, Mel Ramos eta Wayne Thiebaud pintoreekin, eta errealismo fotografiko iparramerikarraren bariante desberdinetan jarraitu zuen, honek izan ere, hotsun distantziatu baten bitartez optika fotografiko konkretu bat ematen du errealtatearen ikuspegi posible bezala. Argi-dukimenaren tratamenduari buruz sortzen dira nagusiki zehaztasun optikoaren diferentziak kasu bakoitzean.

## Hard-edge

Pintura modernoaren errepresentazio-modu espezifiko bat adierazten duen deitura da (hitzez hitz = ertz gogorra esan nahi du), eta berdin aplikatzen zaio eremu kromatikoen konposizio abstraktuari (*colour painting*) nola figurazio objektiboari ere (*pop art*, hiperrealismoari); nagusi-nagusiena kolorea daukan pintura abstraktu baten erreferentzia ekartzen du, kolore bakoitza beste koloreen ondoan garbiki zedarratua eta azalgain lauetan (zimurrik gabekoetan) emanez egina dagoen pintura batena; ezaugarri formal sinpleko pintura bat, geometrikoa edota

organikoa izan ezin daitekeena. Pintura modu hori egiteko bidea prestatu zutenetako batzuk izan ziren Barnett Newman, Ad Reinhardt, Ellsworth Kelly, Mark Rothkoren koadroak, Josef Albers-en idazkiak eta lanak, konplementarioki edo bata bestearen ondoan jarritako koloreen elkar eragina goraiatzen baitzuten, Matisseren azkeneko kollageek eta erretxin sintetiko bidez (akrilikoez) egindako koloratzaile berrien garapen teknikoak. Deitura hau 1958an proposatu zuen Jules Langsner kritikari iparramerikar zenak.

## Hermeneutika

Testu-glosa = testu-interpretazioaren teoria eta praktika adierazi nahi du. Filologia klasikoa izan zen (hizkuntzaren zientzia) hermeneutika jarri zuena —intelektzio konprentsiiboaren disziplina artistikoa den neurrian— izpirituko zientzien oinarri metodologiko bezala (Schleiermacher, Dilthey) eta zientzia naturalak berezkoa den kausazko arrazamenduari kontrajarri zuena.

Interpretazio-metodo hau erabiltzen da ikerketa literario, estetiko, filologiko eta teologikoetan, eta Heideggerrek eta bere ikasle Gadamerrek perfektionatu zuten, horren arabera estetikan erabakiz egin arte-obra baten tajukera eta balioa argi-argi azaldu daitezkeela esplikazio-exegesis bezala erabiltzen bada interpretazio hermeneutikoa. Eskola neomarxistaren teoria kritizistak erlatibizatu egin du artearen interpretazio arrazoituaren metodo heideggeriano horren balioa, eta ulerketa ideologiko-kritiko bat egiten du arteari buruz, arte-teoriaren bere ulermen propioa ateraz itaunketa kritiko eta objektibozko planteamendu baten bitartez, eta itaunketa hori bideratzeko, ezagutzaren teoriarenak diren baldintzatzaila soziologikoak eta helburuak erabiliz.



W. Vostell "Phaenomena".  
Happening, Berlin, 1965.